

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Bermeoko Udala****2020ko uztailaren 28ko Tokiko Gobernu Batzarreko Erabagia****Xedea**

Tokiko Gobernu Batzarrari lagunduko dion Kontratazio Mahai Iraunkorraren izendapena.

Aurrekariak

Lehena: 2019ko ekainaren 15ean izandako Osoko Bilkuran Udal Korporazio berria eratu zen.

Bigarrena: 2019ko ekainaren 21eko 1479 zk. Alkatetza Dekretu bidez, Tokiko Gobernu Batzarrari hainbat eskumen esleitu zitzaizkion. Hain zuzen ere, kontratazioari dago-kionez, 15.000,00 euro edo gehiagoko (BEZa kanpo), espedienteetako baldintza agirien, deialdien eta esleipenen onarpena eskuordetu zitzaion, bai eta kontratuen luzapenak ebaztea eta kontratazioaren exekuzioarekin lotutako bestelako erabakiak hartzea, esleipen prozeduran egon daitezkeen galderak erantzutea izan ezik.

Hirugarrena: Aurrekoaren ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarri lagunduko dion Kontratazio Mahai Iraunkorra izendatu beharra dago, Alkateak eskuordetutako kontratazio-eskumenak betetzen dituen kasuetarako.

Oinarri juridikoak

Lehena: Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 326. artikulua arabera, administrazio publikoen kontratazio-organismoek kontratazio mahai baten laguntza izango dute hainbat lizitazio prozeduretarako.

Bigarrena: Toki administrazioen kasuan, aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarriak arautzen du kontratazio mahaien osaketa, hurrengo adieraziz:

«Kontratazio-mahaiko burua udalbatzako kide bat edo funtzionario bat izango da; mahaikide izango dira udalbatzako idazkaria edo, hala behar duenean, udalbatzari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularra, eta kontu-hartzailea, edo, kasua bada, kontrol ekonomikoaren eta aurrekontukoaren gaineko eginkizuna esleitua duen organoaren titularra, bai eta, karrerako funtzionarioen edo udalbatzaren zerbitzura ari diren langile lan-kontratudunen edo zinegotzien artean kontratazio-organismoak izendatutako beste batzuk ere; kopurua, guztira, ez da hirutik beherakoa izango. Kontratazio-mahaiko kide diren hautetsiak ezingo dira izan mahaiko kide guztien herenak baino gehiago.»

Hirugarrena: Era berean, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21.4 artikulua dio kontratazio mahaiko kideen izendapena iraunkorra izan daitekeela edo kontratu bakoitza esleitzeko modu berariazkoa. Halaber, mahai iraunkorra denean, edo hainbat kontratutarako funtzioak esleitzen zaizkionean, haren osaera Estatuko Aldizkari Ofizialean, Autonomia Erkidegoan edo probintzian argitaratu beharko dela esaten du, Estatuko Administrazio Orokorra, Autonomia Erkidegokoa edo tokikoa den kontuan izanda.

Laugarrena: Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarriak ezarritakoarekin bat etorritik.

**Erabagia**

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honakoa erabagi dau:

Lehenengoa: Tokiko Gobernu Batzarrari lagunduko dion Kontratazio Mahai Iraunkorraren izendapena onestea, Alkateak eskuordetutako kontratazio-eskumenak betetzen ditueneko, ondoko kideez eratuta egongo delarik:

- Mahaiburua: Ekonomiako Zinegotzi Delegatua edo legez ordezkatzeko duena.
- Kideak:
 - Korporazioaren Idazkari Orokorra edo legez ordezkatzeko duena.
 - Udaleko Kontu-hartzailea edo legez ordezkatzeko duena.
 - Kontratua sustatzen duen arloko teknikaria edo, bere kasuan, horretarako izendatzen den teknikaria.
- Idazkaria: Sustatzen duen saileko administraria edo administrari laguntzailea edo, bere kasuan, ordezko izendatzen dena, edota idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikaria, edo, bere kasuan, ordezko izendatzen dena.

Bigarrena: Udal -talde desberdinetako kideei, kontratazio mahaietako batzarretara, entzule moduan bertaratzeko eskubidea onartzea.

Hirugarrena: Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profila argitaratzea.

Laugarrena: Akordio hau udaleko sailburuei eta udal-taldeetako bozeramaileei helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen.

Bosgarrena: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea. Bermeon, 2020ko uztailearen 30ean.— Alkatea